



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko otsailaren 20a

13 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioiko eraikinek errotulu elebidunak izatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak abiaraz ditzan, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du Euskal Herriak, nazio gisa, eskubide osoa daukala bere selekzio nazionalaren bitartez Euskal Pilotaren Munduko Txapelketan parte hartzeko, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinako krisia dela-eta zenbait neurri har ditzan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Iruñeko Udala premiatzen da Gaztelu Plazako aparkalekuko obra zibila geldiaraz dezan, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da animalia espezie batzuentzako osasun baime-netarako dirulaguntzak emateko araubidea alda dezan, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Erretiratutako mozioa (6. or.).
- Adierazpen politikoa, Marokon espetxeratutako Saharako herritarrak aske uztearen aldekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, Espainiako Estatu Europako Batasuneko Lehendakaritzan dagoela-eta, Amnesty Internationalek eskatuta. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, Industri Hondakinak Berreskuratu eta Baloratzeko Zentroaren Proiektua udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (9. or.).
- Galdera, N-121-A errepedeko bideune bakoitzaren obren egoerari buruzkoa, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Benjamín de Tudela Bigarren Hezkuntzako Institutuan Lanbide Heziketa kentzeari buruzkoa, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (10. or.).

- Galdera, Ibilgailu baten jabetzari eta narkotrafiko operazio batekin izan lezakeen loturari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (11. or.).
- Galdera, Oporraldietan osasun-arloko langileak ordeztuko politikari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (12. or.).
- Galdera, Banku-gordailuen baldintzei buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroak Estatuko Aurrekontu Orokorretara eginiko ekarpenen erabilerari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (13. or.).
- Galdera, Vinsak egindako babes ofizialeko etxebizitzan azken sustapeneko esleipen-hartzaileei buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (14. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa onetsi zeneko XX. urteurrena ospatzeko Osoko Bilkurarako arauak (15. or.).
- 2/2002 Foru Dekretua, urtarrilaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (15. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioiko eraikinek errotulu elebidunak izatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak abiaraz ditzan**

### *FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Administrazioiko eraikinek errotulu elebidunak izatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak abiaraz ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Askotariko Parlamentuko Taldeko Milagros Rubio Salvatierrak ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Behatokia Fundazioa Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sustatutako fundazioa da. Euskal lurraldeetako herritarren hizkuntza eskubideak zaintzen dituen Behatoki horrek proposamen bat aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan, Biltzar berria hartuko duen egoitzako kanpo zein barne errotuluetoan eta jendeari arreta zuzena egiteko zerbitzuetan Nafarroako bi hizkuntzak erabil daite-

zen eta erabilera hori berma dadin, erakundea Foru Komunitate osoarena eta nafar gizarte osoarena den aldetik.

Proposamen horrekin bat, gure ustez egokia da Nafarroako Gobernuak ardura duen zerbitzu publiko eta eraikin guztietara zabaltzea proposamena, hartara nafarren hizkuntza eskubideak errespetatu daitezkeen. Zerbitzu publiko eta eraikin horiek nafar gizarte osoarentzakoak dira, eta alde horretatik, gizarte horri behar bezalako arreta egin behar zaio eta behar bezala ordezkaturik sentitu behar da.

Foru Administrazioak ematen dituen zerbitzuetan eta administrazioa dagoen eraikinetan euskararen erabilera bermatzea eska daitezkeen gutxienezkoa da Nafarroako berezko bi hizkuntzen normalizaziorako bidean, pertsonen hizkuntza eskubideak errespetatu eta gure erkidego heterogeneoaren kultur aberastasunari lagunduko dion normalizaziorako bidean. Horregatik guztiatik aurkeztu dugu ondoko

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan Nafarroako Parlamentuaren egoitza berrian zein Foru Administrazioaren eraikin eta zerbitzu publiko orotan Nafarroako berezko bi hizkuntzen erabilera bermatzearen, hala eraikinetako barne zein kanpo errotuluetoan nola jendeari arreta zuzena egiteko zerbitzuetan.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du Euskal Herriak, nazio gisa, eskubide osoa daukala bere selekzio nazionalaren bitartez Euskal Pilotaren Munduko Txapelketan parte hartzeko**

### *BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du Euskal Herriak, nazio gisa, eskubide osoa daukala bere selekzio nazionalaren bitartez Euskal Pilotaren Munduko Txapelketan parte hartzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka dadin.

Arrazoia

2002ko abuztuaren 21etik 31 bitartean Euskal Pilotaren Munduko Txapelketa jokatu da Iruñean.

Baldintza normalizatuetan Euskal Herriko herritar guztiontzat pozgarria litzatekeen albiste honek egun ez gaitu pozten. Albizte pozgarria litzatekeela diogu, euskal pilota Euskal Herriak nazioarteko ondare unibertsalari eman dion kultur altxorra izanik, Munduko Txapelketa Euskal Herrian ospatzeak guk asmatutako kirola Euskal Herriatik bertatik mundura zabaltzeko beste aukera bat gehiago eskaini ligukeelako.

Baina albiste horrek egun ez gaituela pozten diogu, antolaketa ez dutelako euskal federazioek egin, espainiarrak baizik, euskal pilotari eta zale-tuen eskubideak larriki urratuz.

Honela, Euskal Herriak ez du txapelketan bere selekzio nazionalarekin parte hartzerik izanen, euskal pilotariak ez dute euskal selekzioarekin jokatzeko aukerarik izanen, espainiarra eta grantziarra inposatzen baitzaie, bizi diren herrialdearen arabera. Euskal zaletuak ez dute euskal selekzioaren alde txalo egiteko aukerarik izanen.

Euskal pilota Euskal Herriak sortutako kirola izanik eta Munduko Txapelketa Euskal Herrian bertan jokatu delarik, iraingarritzat hartzen dugu euskal selekzioari txapelketan jokatzeko ate guztiak ixtea.

Hau guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuak honako akordio hau hartzen du:

1. Herri gisa, eta areago joko honen sortzailea denez, munduko txapelketa honetan Euskal Herriari bere selekzio nazionalarekin parte hartzeko eskubide osoa dagokiola aldarrikatzea.

2. Bide beretik, Euskal Herriari nazioarteko federazioko kide izateko eskubide osoa dagokiola, beste kideek dituzten eskubide berak izanik.

3. Pilotariei nahi duten selekzioarekin jokatu ahal izateko eskubidea dagokiela, Euskal Herrikoek euskal selekzioarekin aritzeko aukera bermatua izan beharko luketelarik.

4. Akordio hau Euskal Herriko nahiz Nazioarteko euskal pilota federazio guztiei igorriko zaie, Nafarroako Parlamentuaren jarreraren berri izan dezaten.

Iruñean, 2002ko otsailaren 1ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinako krisia dela-eta zenbait neurri har ditzan**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Argentinako krisia dela-eta zenbait neurri har ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan mozioak arautzen dituzten 192. artikulua eta hurrengoak, batetik, eta 109. artikulua, –zeinak Parlamentuko ekimenen presako tramitazioa ahalbidez baita–, bestetik, aplikatuz, honako mozio hau Nafarroako Parlamentuak egiten duen lehen Osoko Bilkuran onesteko eztabaida dadila proposatzen du. Mozioak Nafarroako Gobernua premiatzen du Argentinako krisia dela-eta neurriak har ditzan.

### **Azalpena**

Azken asteotan, Argentinako Errepublika krisi ekonomiko, politiko eta sozial larri bat bizitzen ari da.

Nafarroako gizarteak aspalditik harreman estua dauka Argentinarekin; batez ere, nafar ugari bertara emigratu zutelako, hala arrazoi zorrozki ekonomikoengatik nola Francoren diktaduran izandako errepresioarengatik.

Asiloa eta bitzta hobetzeko aukerak eman dituen lurra izan da Argentina gure herrikide askorentzat, eta, une latz honetan, Argentinako herritarrekin eta, oso bereziki, bertan bizi diren nafarrekin eta haien ahaideekin solidaritatez jokatzeari garrantzia eman behar bat dela pentsatzen dugu.

Esandakoagatik, Parlamentuko Osoko Bilkurak honako erabaki-proposamena onets dezala proposatzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

- Une latz honetan, bere solidaritatea agertzea Argentinako gizarteari eta, bereziki, Centro Navarro Argentino erakundeari.

- Nafarroako Gobernua premiatzea laguntza-programa bat sor dezan, lehentasunzati gizarte-eta osasun-arloetako defizitei aurre egitea eta nazioko Gobernuarekin nahiz antzeko programak sortzen dituzten autonomi erkidegoekin koordinatzea izanen dituena.

Iruñean, 2002ko otsailaren 7an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Iruñeko Udala premiatzen da Gaztelu Plazako aparkalekuko obra zibila geldiaraz dezan**

### *FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Iruñeko Udala premiatzen da Gaztelu Plazako aparkalekuko obra zibila geldiaraz dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN TESTUA**

Askotariko Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa Osoko Bilkuran bidera dadila eskatzen du, eztabaidatu eta puntuz puntu bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Gaztelu Plazaren aldeko plataformak Hezkuntza eta Kultura Batzordearen lan-bileran agerraldia egin ondoren, eta esandakoak arauen ezbetetze ugari agerian uzten dituen (salatutako gaien norainokoa eta konplexutasuna eta arkeologi ondarea zaintzeari begira arazoak daukan garrantzia kontuan izanik).

Eta Vianako Printzea Erakundeko arduradunei buruzko iritzia kontuan izanik (azaleraturiko ondare historikoaren defentsan lanbide-ardurarik eza erakutsi dute, alderdi teknikoetan kontraesanak agertu dituzte, eta ez dira gauza izan udalak haien erabaketan ezarritako jarraibideen arabera jokatzera lortzeko), hauxe eskatzen dugu:

Erabaki-proposamena:

1. Parlamentu honek Iruñeko Udala premiatzen du Gaztelu Plazako aparkalekurako obra zibila geraraz dezan, arkeologi indusketa amaitu eta horren ondorioei buruzko txosten bat eman arte.

2. Balizko erantzukizunak argitzen diren bitartean, Nafarroako Gobernuak Juan Ramón Corpas jauna Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusi kargutik behin-behineko kezka eskatzen du Parlamentu honek.

Iruñean, 2002ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da animalia espezie batzuentzako osasun baimenatarako dirulaguntzak emateko araubidea alda dezan**

### *ERRETIRATUTAKO MOZIOA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bileran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da animalia espezie batzuentzako osasun baimenatarako dirulaguntzak emateko araubi-

dea alda dezan". Talde horrek aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun dagoela adieraztea. Mozio hori 2001eko uztailaren 12ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Adierazpen politikoa, Marokon espetxeratutako Saharako herritarrak aske uztearen aldekoa**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ezen Marokoko erregeak Saharako lurralde okupatuetara egin zuen bisitaren aurka zeudela adierazteagatik iazko azarotik espetxeratuta dauden Saharako 131 herritarrak berehala aske uztearen alde dagoela.

2. Marokok, Nafarroako Parlamentuaren ustez, desagertutako preso sahararrak dauden lekuari buruzko informazio guztia eman behar du, hala

ezartzen baitute nazioarteko legeek eta zuzenbide humanitarioak. Nafarroako Parlamentuak, halaber, desagertutako preso horiek hartzen ari diren tratua gaitzesten du, gizalegearen aurkakoa baita.

3. Adierazpen politiko hau hurrengoei igorriko zaie: Errepublika Arabiar Sahararrak Nafarroan duen ordezkariari, Marokoko Erreinuak Espainian duen embaxadari eta Espainiako Estatuko Atzerri Gaietako Ministerioari.”

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

## **Adierazpen instituzionala, Espainiako Estatu Europako Batasuneko Lehendakaritzan dagoela-eta, Amnesty Internationalek eskatuta**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, ondoko adierazpen instituzionala onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak lehendakaritza espainiarra hurrengoak egin ditzan premiatzen du:

1. Duen programa giza eskubideen ikuspegi argi eta garbi batez blaitu dezala.

2. Beha dezala ea Europar Batasunak nahiz kide diren estatuak ziurtatzen duten segurtasuna bermatze aldera hartzen dituzten neurri guztiek giza eskubideen printzipio eta arlo horretako nazioarteko zuzenbidea errespetatzen dituzten, eta, horien artean, Europako Batasuneko Oinarriko Eskubideen Karta.

3. Lehendakaritza espainiarrak indar egin behar du neurri eraginkorrak lor daitezen edozein pertsona atxilotzean edo espetxeratzeko pertsona hori babesteko nazioartean ezarritako irizpideak erabat errespetatzeko; mekanismo bereziak ere ezarri beharko dira segurtasun indarrek pertsonen ematen dieten tratua kontrolatzeko, pertsona horiek askatasunik gabe edo kanporatze prozesuan daudenean. Ahalegin tinkoa eta jarraitua egin behar da egoki aurre egiteko edozein indarkeria arrazistari, eta argi utzi behar da Europar

Batasunak eta kide diren estatuak ez dituztela onartuko gorroto eta bazterkeria delituak.

4. Lehendakaritza espainiarrak neurriak har ditzala kide diren estatu guztientzat nahiz etorkizunean ere izanen direnentzat, jarraipen eta neurketa sistema bat lortzeko.

5. Giza eskubideak atzerriko laguntzarako programetan sartzea orekatu egin behar da eta tinko egin behar zaie aurre giza eskubideen urratzei atzerri eta segurtasun politika komunaren esparruan; elkarrizketa politikora jo behar da hirugarren herrialdeekin egiten diren akordioen esparruan; berariazko tresnak ereabili behar dira, hala nola heriotza zigorra eta torturari buruzko jarraibideak. Aurreko horiek egitean, Europar Batasunak saiatu behar du edukiz betetzen giza eskubideen klausula, eta, halaber, horren jarraipena eta neurketa egiteko sistema bat sortzen. Kanpo harreman guztietan, behin eta berriz eskatu behar da NBEren giza eskubideei buruzko irizpide eta mekanismoak bete daitezela.

6. Lehendakaritza espainiarrak ziurta dezala Europar Batasunak ekin egiten diola eta laguntza emanen diola NBEren giza eskubideen batzordearen behin betiko ekintza bati hurrengo herrialde hauetan giza eskubideak duten egoera dela-eta: Kolonbia, Indonesia, Ekialdeko Timor, Israel eta

okupatutako lurraldeak, Errusiako Federazioan, Saudi Arabian eta Zimbabwen. Gainera, Europar Batasunak ziurtatu egin behar du Txinak ez dezala saihestu berriro ere giza eskubideez arduratzen den Nazio Batuen organo nagusiaren ikerlana.

7. Lehendakaritza espainiarra, Madrilen egitekoa den Europar Batasuna-Latinoamerika goi bileran, bereziki saia dadila inpunitatea desagerrarazten giza eskubideen urratzeari dagokionez; horrela, zapaltzeei aurrea hartzeko estrategiari ekinen zaio, bai eta talde ahulak babesteko eta giza eskubideen babesleei laguntza emateko strategiari. Kolonbiari dagokionez, azpimarratu egin behar du NBERen gomendioak erabat bete behar dituela Kolonbiako Gobernuak; kontuan izan behar dira, baita ere, bake prozesuan izaniko aurrerapenak –sei hilean behin egiten dira balorazioak– eta ziurtatu behar da Europar Batasunaren laguntzak ez direla Kolonbia planaren baitan dauden proiektuetarako izanen.

8. Lehendakaritza espainiarrak ziurtatu egin behar du giza eskubideen babesak arreta eta laguntza jarraitua duela Afrikan. Bereziki, Afrikako Laku Handien eskualderako ordezkari bereziak bere agintaldi eta lanetan eman behar die berriaz lehentasuna giza eskubideen babestu eta sustatzeari.

9. Europar Batasunak, Ekialde Hurbilean bake prozesua biziberritzeko edozein ahalegin diplomatiko egiten bada etorkizunean, giza eskubideen babesa jarri behar du erdigunean. Akordio euro-mediterraneoetan giza eskubideei buruzko klausulak aldatu –egun, paperean ezarritako formula hutsak besterik ez baitira– eta kide diren estatue-

tan giza eskubideek duten egoera etengabe gainbegiratzeko mekanismo eta, eskubideen urratzei aurrea hartze aldera, parte hartzeko bide benetakoak bihurtu behar dira.

10. Lehendakaritza espainiarrak orotariko ikuspegia izan dezala giza eskubide mota guztiak errespetatu daitezkeen lortzeko, eta, horrela giza eskubideen irispenean leheneratu eta kontuan har dadila asiloari buruzko eztabaidan. Asiloari buruzko sistema europar komun bat garatzean, bermatu beharra dago giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea eta asilo eskubidea erabat betetzen direla.

11. Lehendakaritza espainiarrak neurriak hartu behar ditu indartzeko Armen Transferentzietan buruzko Europar Batasuneko Jokabide Kodea; bilatu behar du Europar Batasun osoan lehenbailehen debeka dadila tortura materiala egitea, sustatzea eta salerostea, eta lortu behar du Europako Batasunaren konpromiso aktiboa armen salerosketari buruzko nazioarteko araudia hobetzeko, horretarako Armen Nazioarteko Transferentzietan buruzko Hitzarmen Markoa ezarri.

12. Lehendakaritza espainiarrak ziurtatu behar du enpresen gizarte erantzukizunari buruz ontzen ari den eztabaidak erabat har dezala kontuan giza eskubideengan izaten den eraginaren tamaina eta, marko europarra garatzean, enpresek beren ardurak betetzea ez dadila aukerakoa bakarrik izan.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Industri Hondakinak Berreskuratu eta Baloratzeko Zentroaren Proiektua udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeari buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Industri Hondakinak Berreskuratu eta Baloratzeko Zentroaren Proiektua udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Askotariko Parlamentuko Taldeko Milagros Rubio Salvatierrak, Biltzarreko Erregelamenduko

184. eta ondoko artikuluetan xedatuaren babesean, ondoko galderak egin ditu, idatziz erantzun diezazkioten:

2001eko 97. NAO n eman zen ezagutzera udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratu izana industri hondakinak berreskuratu eta baloratzeko zentroaren proiektua. Erabaki haren bitartez, instalazioak ukitzen duen udalaren entzunaldian jarri zen espedientea. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1. Ez al da tramite bera bete behar Cabanillas eta Tuterako udaletan?

2. Posible al da Gobernuako lehendakariak jakin ez izana aipatu instalazioa udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratu zela?

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

---

## **N-121-A errepideko bideune bakoitzaren obren egoerari buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak N-121-A errepideko bideune bakoitzaren obren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun diezaien:

Nafarroako Gobernuak urteak daramatza N-121-A errepidea hainbat bideunetan hobetzeko obrak egiten; haietako bakoitzak, hortaz, egoera jakin bat du.

Galderaren helburua da hain zuzen ere horietako bakoitzaren egoera zein den eta noiz bukatzeko asmoa dagoen jakitea.

Lehena. N-121-A errepidea hobetzeko obrak hainbat bideunetan banatu dira. Zein da horietako bakoitzaren egoera?

Obra hasi gabe edo egiten ari bada: exekuzio proiekturik dagoen ala ez, aurreikusi diren epeak, orain arte egindakoa eta abar.

Obra bukatuta badago: fase bakoitzaren kostua –proiektua taxutzea, desjabetzapena, obren exekuzioa—. Eman bedi kasu bakoitzeko azken zenbatekoa eta gertatu diren desbideraketak, hala nola desbideraketa horien zergatia.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## **Benjamín de Tudela Bigarren Hezkuntzako Institutuan Lanbide Heziketa kentzeari buruzko galdera**

### *FORU PARLAMENTARI M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak Benjamín de Tudela Bigarren Hezkuntzako Institutuan Lanbide Heziketa kentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko Hezkuntza eta Kultura eledun Isabel Arboniés Bermejok, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Iazko irailaren 18ko agerraldian, Laguna kontseilariak lanbide heziketako sistema bateratu bati buruz hitz egin zuen. Sistema hori kualifikazioen sistema nazional bat sortuko duen Estatu mailako lege baten bidez arautuko litzateke; Nafarroan, berriz, Lanbide Heziketako plan bat eta araudi berri bat –esparru nazional horren baitan sartua– abiatuko lirateke.

Laguna kontseilariaren arabera, sistema bateratu horren bidez prestakuntza arloko eskaintzak produkzio sektoreen kualifikazio-beharrizanetara egokitu nahi dira. Gisa horretako neurriak, ordea, ez dira berriak herri honetan, iraganean ere erabili baitziren produkzio sektoreko langile espezializatuak trebatzeko.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Egia al da datorren ikasterterako kendu egin nahi direla Lanbide Heziketako lerroak Benjamín de Tudela Bigarren Hezkuntzako Institututik?

2.- Egia al da Tuterako ETI-Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Institutua bi ikastetxetan banatuko dela, bata batxilergoetarako eta bestea Lanbide Heziketako lerroetarako?

3.- Erriberako aldaketa horiek Nafarroako Lanbide Heziketako antolamendu berriaren plan experimentalari zor zaizkio?

4.- Ba al da Lanbide Heziketan bestelako neurririk, Nafarroan Lanbide Hastapeneko programak eta LHko zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatu eta BHEtan 2002/03 ikasterterako antolakuntza arloko aldaketak ekarriko dituenik?

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Isabel Arboniés Bermejo

## **Ibilgailu baten jabetzari eta narkotrafiko operazio batekin izan lezakeen loturari buruzko galdera**

### **BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak ibilgailu baten jabetzari eta narkotrafiko operazio batekin izan lezakeen loturari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak egin ditu Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezazkion:

Kale Gorria aldizkariak –ikerkuntza eta gizarte-salaketako hilabetekaria– urtarrileko alean artikulatu bat argitaratu du, Nafarroako Gobernuak kontseilari ohi Ramón Bultó Llevat aipatzen duena 1997ko ekainean poliziak egindako operazio bati buruzko informazioekin lotuta. Operazio hartan 15 tona haxix atzeman zituzten.

Kazetaritza informazio horien arabera, Ramón Bultó Llevaten izena narkotrafiko operazio hartan nahasi duten kotxe bati loturik azaltzen da. Hainbat agiri judizialean oinarritutako informazio horietatik ondoriozta daitekeenez, kotxe hori –zeinaren titularitatea SEAT, S.A.ri esleitu baitzitzaion– Ramón Bultó Llevaten zerbitzura zegoen polizia operazioa gertatu zenean.

Orobat esaten da, betiere informazio horiei jarraikiz, kotxe hori Nafarroako Gobernuaren izenean azaltzen dela, 1996ko irailaren 19tik 1999ko uztailaren 28ra bitarte, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko artxiboetan.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak ondoko galderak erantzun ditzan nahi du gure talde parlamentarioak:

Egon al da inoiz Nafarroako Gobernuaren izenean B-6784-SH matrikulako Seat Toledo berde bat? Hala baldin bada, zehaztu datak eta nori zegokion hura erabiltzea.

Zer ordezkaritza kargu edo postu ditu gaur egun Ramón Bultó Llevat jaunak Nafarroako Gobernuak izendatuta? Zehaztu horietako bakoitza eta zein egunetatik dagoen postu horretan.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 30ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## Oporraldietan osasun-arloko langileak ordezteko politikari buruzko galdera

*FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak oporraldietan osasun-arloko langileak ordezteko politikari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN TESTUA

Askotariko Parlamentuko Taldeko Milagros Rubio Salvatierrak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. eta ondoko artikuluetan xedatuaren babesean, ondoko galderak egin ditu, idatziz erantzun diezazkieten:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sarea ospe eta itzal handikoa da. Halere, ematen dituen zerbitzuen kalitatea okertu egin daiteke baldin eta osasun arloko langileei buruzko politikan zentzuzko neurriak hartzen ez badira; zehatzago esanda, oporrak eta bestelako aferak direla medio gertatzen diren hutsuneak betetzearren sendagileak eta erizainak ordezteko neurriak hartzen ez badira. Jakina denez, Nafarroako oinarritzko

laguntzako sarea eratzen duten osasun etxe eta ambulatorioek berebiziko garrantzia dute gaixoarentzako laguntzari eta osasun prebentzioari begira.

Antza denez, aspaldi honetan, betetzen ez diren hutsuneak gertatzen dira, hutsune bi edo gehiago betetzeko pertsona bakarria kontratatzen da, edo bost orduko kontratua egiten da zazpi orduko lana egiteko. Horrek guztiak langileen haserrea eragiten du, eta gaixoentzako laguntzak okerrera egitea ekar dezake.

Hori dela-eta, Osasun kontseilariak ondokoei erantzutea nahi dut:

1. Ba al du Nafarroako Gobernuak asmorik aurrerantzean osasun arloko profesionalen opor zein aurreikusteko moduko baja guztiak betetzeko? Hala baldin bada, zehaztu nola egingen den (kontratu mota, ordeztu beharreko hutsune kopuruaren arabera zenbat pertsona kontratatuko den, eguneko zenbat lanordu...). Hala ez baldin bada, zehaztu zer hutsune beteko diren eta zein ez diren beteko, eta zergatik.

2. Hitz egin al du Nafarroako Gobernuak sendagile eta erizainen ordezkariekin auzi honi buruz? Hala baldin bada, esan zein ondorio atera dituen, eta hitz egin ez badu, esan zergatia.

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

## Banku-gordailuen baldintzei buruzko galdera

*BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak banku-gordailuen baldintzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Jakina denez, talde parlamentarioek gizarte gastuari buruzko proposamenak egin dituztenean –oinarritzko errenta, 0-3 urte bitarteko zikloaren ezarpena, testu-liburuaren doakotasuna, gizarte zerbitzuen finantzaizioa...–, Gobernuak beti erantzun du esanez gastu publikoan lehentasunak

ezarri beharra dagoela eta zorpetzea ekidin beharra dagoela.

Hori dela-eta, gure talde parlamentarioak hauxe jakin nahi du:

1999, 2000 eta 2001eko abenduaren 31n Nafarroako Gobernuak banku-gordailutan zituen

diruen zerrenda; adierazi bedi zein banketxetan dituen diru horiek eta zein baldintzatan –epeak eta interes-tasa– daukan horietako bakoitza.

Iruñean, 2002ko otsailaren 4an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## **Nafarroak Estatuko Aurrekontu Orokorretara eginiko ekarpenen erabilerari buruzko galdera**

### *BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Nafarroak Estatuko Aurrekontu Orokorretara eginiko ekarpenen erabilerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **GALDERAREN TESTUA**

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Iragan urtarrilaren 31n, Ekonomia Hitzarmenaren berritze ta gaurkotzea negoziatzeko bilerak

egiten hasi ziren Estatuko eta nafarroako gobernuetako ekonomia arduradunak.

Jakina denez, hitzarmen horri jarraikiz, Nafarroaren ekarpenak Estatuko Aurrekontu Orokorren ehuneko 1,6 egin behar du, eta halere, nafar gizateak gutxitan jakin ahal izaten du zertarako erabiltzen diren zehatz-mehatz nafarren diru horiek.

Hori dela-eta, gure talde parlamentarioak hauxe jakin nahi du:

Estatuko Aurrekontu Orokorreko zer gastu ordaintzen diren (Defentsa Ministerioa, Polizia, Errege Etxea, Kanpo Arazoak...); adierazi bedi horietako bakoitzan aurrekontualdi bakoitzean zer ehuneko egiten duen Nafarroak Estatuari eginiko ekarpenean eta horrek zenbat diru egiten duen 1999, 2000, 2001 eta 2002an (hala ordainduak nola aurreikusiak).

Iruñean, 2002ko otsailaren 4an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

## Vinsak egindako babes ofizialeko etxebizitzaren azken sustapeneko esleipen-hartzaileei buruzko galdera

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Vinsak egindako babes ofizialeko etxebizitzaren azken sustapeneko esleipen-hartzaileei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

#### GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak egin ditu, idatziz erantzun diezazkieten:

2002ko urtarrilaren 31n herrialdeko hedabide batek informatzen zuenez, etorkinak ziren VINSAK egindako babes ofizialeko etxebizitzaren azken sustapeneko esleipen hartzaileen % 38 –71 etxebizitzak eskaini zituen Sanduzelain eta Arrotxapean Nafarroako Gobernuaren sozietate publiko horrek–.

Gizarte mailan eztabaida zabala eragin duen datu hori hedabide batek eman du aditzera, erran nahi baita norbaitek eman diola hedabide horri etxebizitzaren hartzaileen jatorri etnikoari buruzko informazioa. Izan ere, hartzaileen izen-abizenen zerrendak –horixe baino ez da VINSAK ezagutzera emandakoa–, berez, ez du inondik ere

bide ematen horien jatorria eta naziotasuna kazetaritzako informazioak zehaztasun osoz ematen zuten bezala jakiteko.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak eta VINSA sozietate publikoak ondokoak argitzea nahi dugu:

1.- Kazetaritzeko informazio horretan babes ofizialeko 71 etxebizitzaren sustapeneko hartzaileen jatorri eta naziotasunari buruzko informazioa eman zen. Eman al dio VINSA-Viviendas de Navarra, S.A.k informazio hori enpresaz kanpoko inori?

2.- Hala baldin bada, sozietate publikoko edo Nafarroako Gobernuko zer arduradunek eman du informazio hori emateko baimena?

Zer arau edo baimenetan oinarrituta eman dira hartzaileen jatorri eta naziotasunari buruzko datuak?

3.- VINSAK ez badaki datu horiek nola zabaldu diren, abiaraziko al du barne ikerketa bat ea informazioaren filtraziorik gertatu den, non gertatu den eta arduradunak nortzuk diren argitzeko?

4.- Nafarroako Gobernuaren ustez, hartzaileen jatorri eta naziotasunari buruzko informazioa filtratu izanak datuak babesteari eta horien isilpekotasunari buruzko araudia urratzen al du?

5.- Sustapen horretako 71 etxebizitza horietako bat 5.000tik gora herritarrek eskatu zuten. Aplikatuak baremoari jarraikiz, horietako zenbatek zuten horretarako eskubidea?

Iruñean, 2002ko otsailaren 6an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa onetsi zeneko XX. urteurrena ospatzeko Osoko Bilkurarako arauak**

2002ko otsailaren 11n eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarra entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen besteak beste:

**1.** Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa onetsi zeneko XX. urteurrena ospatzeko Osoko Bilkurarako arauak onestea. Hona:

Lehena. Lehendakariak, gai zerrendako puntu bakarra eta arau hauek irakurritz, hasiera emanen dio bilkurari. Ondoren, talde parlamentarioetako eledunei emanen die hitza, parlamentari gehien dituenetik hasi eta gutxien dituenarekin amaituz.

Bigarrena. Taldeen ordezkarien hitzaldiak hamabost minutukoak izanen dira. Eledunek,

hitzaldietan, egoki irizten diotena adieraziko dute Parlamentuak Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren testua onetsi izanaren hogeigarren urteurrena dela eta.

Hirugarrena. Ondoren, Gobernuak Lehendakariak hitz egin ahal izanen du hamabost minutuz.

Laugarrena. Azkenik, Parlamentuko Lehendakariak hitz egin eta ekitaldia amaitu egingen da.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

---

## **2/2002 Foru Dekretua, urtarrilaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duen urtarrilaren 7ko 2/2002 Foru Dekretua, deituko den hurrengo Osoko Bilkuran estabaidatzea, abenduaren 14ko 13/2000 Tributuei buruzko Foru Lege Orokorreko 12. artikuluan ezarritakoa betez, zeinak esku ematen dion Nafarroako Gobernuari

behar diren arau behin-behineko guztiak emateko Hitzarmen Ekonomikoak hala aginduta Estatuaren araudi substantibo eta formazko beraren arabera gobernatu behar diren tributuetarako.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **2/2002 Foru Dekretua, urtarrilaren 7koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena**

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1990eko uztailaren 31n sinatu zuten hitzarmeneko 27. artikulua ezartzen du Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko Nafarroak unean unean Estatuan indar duten oinarritzko printzipio eta arau mamizko nahiz formazko berberak aplikatuko dituela.

Bestalde, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrek 12. artikuluan baita ematen dio Nafarroako Gobernuari tributuarloan beharrezkoak diren behin-behineko arauak emateko, hitzarmen ekonomikoaren arabera, Estatu mamizko eta formazko arau berberen menpean baldin badaude.

Araubide komunean onetsi dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen Legearen hainbat aldaketa. Horietako batzuek Europako Bataunaren arauak egokitze aldera egin dira eta beste batzuk aldaketa teknikoak dira. Ondoko hauek dira aipagarriak: obrak exekutatzeko kontratuen zerga-sortzapenaren ingurukoak eta segidako traktuko eragiketa batzuen ingurukoak; subjektu pasiboaren inbertsiorako mekanismoaren aplikazioaren ingurukoak; bi edo hiru gurpiletako ibilgailuen tasa orokorraren aplikazioaren ingurukoak (50 zentimetro kubikotik beherakoak); ontziraturako petrolioaren gas likuatuaren horniduren ingurukoak; autopista zerbitzuak erabiltzearen ingurukoak eta oker kobratutako dirusarrerak itzultzeko eskaera egiteko aukeraren ingurukoak, kuoten zuzenketaren ondorioz hasiera batean erasandako kuota txikiagoak badira. Pezetatiko erreferentzien ordeztasunak sartu da 14. artikuluan, eta 35 eta 60. artikuluetan 3/1989 Foru Legearen errekarguaz egiten den aipamenaren ordeztasunari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 52.3 artikulura jo beharra ezarri da.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen egiten diren aldaketak araubide komunean egin direnak eransteko egiten dira.

Hori guzti hori ikusirik, Foru Dekretu bidez arau batzuk eman behar dira, Nafarroan behin-behineko indar izateko, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 12. artikulua horretan ezarritakoarekin bat, hari eta Parlamentuak behin betikoz onesten dituen arte, hari bidali beharko baitzaizkio arauak hartu eta hurrengo hamar eguneko epean.

Hori horrela, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak hala proposaturik eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta biko urtarrilaren zazpian egindako bilkuran hartu Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.-** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

2002. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko artikuluetatik ondoren aipatzen direnak aldatu eta honela geldituko dira.

Bat.-9.1.c) artikulua.

“c) Ondasun korporalen atxikipena sektore batetik beste batera aldatzea, enpresa edo lanbide jarduera bereizita.

c) letra honetan adierazten den autokontsumoaren kasuan, honako egoera hauetan ez da aplikatuko:

– Indarra duen arautegia aldatzeagatik, jarduera ekonomiko batek beste sektore batera igaro behar baldin badu nahitaez, hau da, lehen integratua zegoen sektoreaz beste batera.

– Jarduera ekonomiko jakin bati aplikatu beharreko tributazio araubidea aldatzen denean, zehazki, araubide orokorretik araubide berezi erraztura, nekazaritza, abentzaintza eta arrantzaaren araubidera, baliokidetzaren errekarguaren araubidera edo inbertsioko urte bidezko eragiketen araubidera, eta alderantziz ere, aukera eskubidea baliatzen bada ere.

Aurreko bi lerroaldeetan adierazitakoa aplikatuko da ondoko hau galarazi gabe:

– Foru Lege honen 47, 51, 52, 53, 55, 56, 58 eta 59. artikuluetan ezarritako kenkarien erregulazioak.

– Foru Lege honen 45. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoaren aplikazioa, erositako ondasun eta zerbitzuetarako aurreikusitako destinoaren arabera, hasiera batean egindako kenkarien zuzenketa-ri buruz, haien benetako destinoa aurreikusitakoa ez beste bat denean, hori guztia inbertsio ondasunak ez diren ondasun edo zerbitzuak erosi edo inportatzeagatik jasandako edo ordaindutako kuoten kasuan, baldin eta ondasun edo zerbitzu horiek enpresa edo lanbide jardueran ez badira deus ere erabili, hasiera batean -hots, kuota ordaindu zirenean- erabili behar zireneko jarduera ekonomiko hori beste sektore berezitu batera igarotzeagatik.



– Foru Lege honen 100. artikuluan ezarritakoa, baliokidetzaren errekarguaren araubide bereziaren pean dauden jarduerak hasteko edo amaitzeko kasuei dagokienez.

Foru Lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honako hauek dira enpresa edo lanbide jardueren sektore berezituak:

a') Egiten diren jarduerak ekonomikoak eta aplikatzen diren kerkarien araubidea ezberdinak dituztenak.

Jarduerak ekonomiko ezberdinak dira Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalen talde ezberdinetan daudenak.

Aurreko legeroaldean adierazitakoa gorabehera, jarduerak osagarriak ez dira jarduerak aldatzeko hartuko, baldin eta jarduerak osagarriaren aurreko urteko eragiketaren bolumena guztirakoaren % 15etik beherakoa bada eta, gainera, hartan laguntzen baldin badu. Aurreko urtean jarduerak osagarriak ez bada egin, ehuneko hori aplikatuko da subjektu pasiboaren arazoizko aurreikuspenen arabera, deusetan galarazi gabe bidezko erregularizazioa, benetakoa ehunekoak aipatu muga gainditzen baldin badu.

Jarduerak osagarriak jarduerak nagusiaren araubide berberaren menpe egonen dira.

a') letran aipatzen diren kerkari-araubideak ezberdinak direla joko da, baldin eta Foru Lege honen 50. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu diren kerkari ehunekoaren artean, hau da, jarduerak nagusiari eta jarduerak osagarriari aplikatu beharreko kerkarien arteko diferentzia, % 50 edo handiagoa den kasuetan.

Jarduerak nagusiak, horren jarduerak osagarriak eta jarduerak ekonomiko ezberdinek sektore berezitu bakar bat osatuko dute, baldin eta horien kerkarien ehunekoak eta jarduerak nagusiari dagozkion arteko diferentzia % 50etik beherakoa bada.

a') letran ezarritakoaren ondorioetarako, jarduerak nagusia izanen da aurreko urtean eragiketaren bolumenik handiena sortu duena.

b') Araubide berezi erraztuan, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzakoan, inbertsioko urtearen bidezko eragiketaren araubidean edo baliokidetzaren errekarguaren araubidean sarturik dauden jarduerak.

c') Kreditu entitateen Disziplina eta Esku-hartzeari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen finantza errentamenduen eragiketak.

d') Kredituak edo maileguak lagatzeko eragiketak."

Bi.-14.2. artikulua, lehen legeroaldea.

"2. Aurreko puntuaren ezarritako atxikipen-eza Europako Batasunaren barrenean egiten diren ondasunetan baino ez da aplikatuko, aipatu pertsonak egiten dituztenean, betiere Batasuneko beste estatuetatik datozen ondasun erosketen zenbateko osoa, estatu horietan sortutako zergak kenduta, aurreko urte naturalean 10.000 eurotik beherakoa baldin bada."

Hiru.-24.1. artikulua.

"1. Zerga honako kasuetan sortuko da:

1. Ondasun eskualdaketetan, ondasuna eroslearen eskura jartzen den unean edo, bestela, aplikagarri den legearen arabera eskualdaketa gauzatzen den unean.

Aurreko legeroaldean adierazitakoa gorabehera, jabetza erreserbatzeko ituna edo beste edozein baldintza duten salerosketa kontratuetan, ondasunen errentamendu-salmenta kontratuetan eta jabetzaren transferentzia klausula bi alderdientzat ezarritako duten ondasunen errentamendu kontratuetan, zerga sortuko da kontratuaren xede diren ondasunak eroslearen eskura uzten direnean.

2. Zerbitzu emateetan, kargatzen diren eragiketak eman, gauzatu edo egiten diren unean.

Dena dela, obren exekuzio kontratuetan, materialak norberak eraman behar baditu, kasuan kasuko ondasunak obraren jabearen esku uzten direnean.

2. bis. Administrazio Publikoentzako obren exekuzioetan, materialak norberak eraman edo ez, obrak jasotzen diren unean, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 113. artikulua arabera, edo bestela, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 147. artikuluan xedatutakoaren arabera (ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia).

3. Erosketa komisioen kontratuen bidez komisio-emailearen eta komisio-hartzailearen artean egiten diren ondasunen eskualdaketetan, azken hori bere izenean aritzen bada, komisio-hartzaileak ondasunak ematen dituen unean.

Alderdi batek besteari ondasun higarriak ematen dizkion kontratuen kasuan, baldin eta ondasunak ematen direnean horiek balio jakin bat baldin badute eta hartzailea behartua baldin badago epe jakin batean saltzera eta saldutako eta

saldu ez dituen ondasunetarako kalkulatu den balioa itzultzeraz, saldutako ondasunei dagokien entregean sortzapena erosleak hartzailearen esku jartzen dituen unean hasiko da.

4. Erosketa komisioaren kontratuen bidez komisio-emailearen eta komisio-hartzailearen artean egiten diren ondasun eskualdaketetan, lehenbizikoa bere izenean aritzen bada, komisio-hartzaileari ondasun horiek ematen zaizkionean.

5. Autokontsumo kasuetan, kargatzen diren eragiketak egiten diren unean berean.

Dena den, Foru Lege honen 9. artikuluko 1. atalaren d) letran, hirugarren leerroaldean, aipatzen diren kasuetan, Zerga sortzapena ondoko egun hauetan gertatuko da:

a) Kenkaria egiteko eskubidea mugatu edo iraungitzeko kausak gertatzen diren unean.

b) Xedeko ondasunak kenkaria izateko eskubidea ez duten eragiketetan erabiltzen diren urteko azken egunean.

c) Hainbanaketarako arau orokorra aplikagarri den urteko azken eguna.

d) Aipatu eskubideaz salbuetsita dagoen entregaren sortzapena gertatzen den unean.

6. Foru Lege honen 9. artikuluko 3. idatz-zatian aipatu ondasun eskualdaketetan, Batasuneko kide den estatu jatorrizkotik ondasun garraioa hasten den egunean.

7. Errentamenduetan, horniduretan eta, oro har, segidako traktuko eragiketetan, jasotze bakoitzari dagokion prezioaren zatia eskatzen ahal den unean.

Dena dela, prezioa adostu ez denean edo, adostuta egonda ere, ordainketa noiz eskatuko den zehaztu gabe dagoenean, edo ordainketaren aldizkotasuna urte natural batetik gorakoa denean, Zergaren sortzapena abenduaren 31n gertatuko da eta eragiketaren hasieratik edo aurreko sortzapenetik egun hori arte igarotakoari dagokion zati proportzionala ordaindu beharko da.

Aurreko leerroaldeetan xedatutakotik aparte geldituko dira 1. idatz-zatiko bigarren leerroaldean aipatzen diren eragiketak”.

Lau.-27. artikuluan beste zenbaki bat eranstea, 10.a hain zuzen. Horren ondorioz, 10. eta 11. zenbakiak 11. eta 12.ak izatera pasako dira.

“10. Xedea edo emaitza inbertsioko urrea ez duten ondasun entreetan edo zerbitzu emateetan eta, halaber, eragiketaren hartzaileak berak jarritako urrea erabiltzen denetan, baldin eta urre

horren erosketa edo inportazioa zergatik salbuetsita izan baldin bada, Foru Lege honen 85.bis.1 artikuluko 1. atalean aurreikusitako salbuespenaren ondorioz edo Europako Batasuneko kide den beste herrialde bateko legeetan horren baliokide den beste salbuespen baten ondorioz, zerga oinarria ateratzeko kontraprestazioaren zenbateko osoari urre horrek Zergaren sortzapen-egunean merkatuan duen balioa kenduko zaio.”

Bost.-31. artikulua.

“31. artikulua. Subjektu pasiboak.

Honako hauek dira Zergaren subjektu pasiboak:

1. Enpresaburu edo profesionalen izaera izanik, Zergaren menpe dauden ondasunak entregatzen edo zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, ondoko ataletan xedatzen dena izan ezik.

2. Kargaturik dauden eragiketen helburu diren enpresaburu edo profesionalak, kasu hauetan:

a) Eragiketa horiek Zergaren aplikazio eremutik kanpoko pertsona edo entitateek egiten dituztenean.

Hala ere, letra horretan adierazitakoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

a') Zerbitzu emate horien hartzailea ere Zergaren aplikazio eremutik kanpoko bada, salbu eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 70. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 6 eta 7. zenbakietan eta 72, 73 eta 74. artikuluetan ageri diren zerbitzu-emateak direnean eta horien hartzaileak identifikazio zenbakia jakinarazi baldin badiu zebitzu-emaileari, hots, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako Espainiako Administrazioak esleitu dion zenbakia.

b') Aurreko letran aipatu Legearen 68. artikuluko hirugarren eta bosgarren idatz-zatietan aipatu ondasunak entregatzen direnean.

c') Foru Lege honen 18. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan edo 22. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, Zergatik salbuetsita dauden ondasunak entregatzen direnean.

b) Entregatzen dena landu gabeko urrea edo urrezko produktu erdi-landua denean, 325 milarenekoa edo hortik beherakoa.

3. Zergari lotuak dauden ondoko eragiketa hauen hartzaile diren pertsona juridikoak, enpresaburu edo profesional gisa aritzen ez badira ere, eragiketa horiek Zergaren aplikazio eremutik kanpoko enpresaburu edo profesionalak egiten badi-

tuzte eta, betiere, eragiketak egiten dituzten enpresaburu edo profesionalari identifikazio zenbakia jakinarazi baldin badiote, hots, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako Espainiako Administrazioak esleitu dion zenbakia.

a) Foru Lege honen 23. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren Batasunaren barreneko erosketen ondoko entregak.

b) Balio Erantsiaren gaineko araubide komuna arautzen duen Legearen 70. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 6. eta 7. zenbakietan eta 72., 73. eta 74. artikuluetan aipatu zerbitzu-emateak.

2. Foru Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, Zergaren aplikazio eremuan ezarritako subjektu pasibotzat ondoko hauek hartuko dira: kasuan kasuko jarduera ekonomikoaren egoitza, establezimendu iraunkor bat edo helbide fiskala eremu horretan dutenak, nahiz eta Zergari lotuta dauden eragiketak beste establezimendu batetik egin.

3. Subjektu pasibotzat hartuko dira, orobat, jaraunspen jasogabeak, ondasun erkidegoak eta beste entitate batzuk, izaera juridikoa izan gabe ere, unitate ekonomiko edo ondare berezitu zergagarri bat osatzen badute, Zergari loturko eragiketak egiten dituztenean.”

Sei.-33.1.a artikulua.

1.a. Zergaren betebeharrak zuzen betetzen ez dituzten eragiketen hartzaileak, egite edo ez-egite erruzkoa edo dolozkoa dela bide.”

Zazpi.-35.5. artikulua.

“5. Kuotak zuzendu ondoren ateratzen den kopurua hasieran erasandakoa baino handiagoa baldin bada eta aurretik errekerimendurik egin ez bada, subjektu pasiboak zuzenketarako aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko du. Kasu horretan, Tributuiei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 52.3 artikuluan aipatu errekar-guak aplikatuko zaizkio, hala nola berandutza korrituak.

Aurreko lerroaldean adierazitakoa gorabehera, zuzenketa Foru Lege honen 28. artikuluan zerga oinarria aldatzeko ezarritako kausaren ondorioz egiten baldin bada edo zuzenbidezko akats funtsezko batek sortu baldin badu, subjektu pasiboak zuzenketa egin behar den epeari dagokion aitorpen-likidazioan sartu ahalko du diferentzia hori.

Kuotak zuzendu ondoren ateratzen den kopurua hasieran erasandakoa baino txikiagoa baldin

bada, ordea, subjektu pasiboak bi aukerabide izanen ditu:

a) Zerga administrazioan, oker kobratutako dirusarrerak itzultzeko dagokion prozedura hastea.

b) Zuzenketa egin behar den epeari dagokion aitorpen-likidazioan edo hurrengoetan tributu egoera hori erregularizatzea, zuzenketa hori egin behar zenetik hasita urte bat igaro arte gehienez. Kasu horretan, subjektu pasiboa behartua dago soberako kuotak itzultzera eragiketaren hartzaileari.”

Zortzi.-37. artikuluko Bat.1. ataleko 8. eta 10. idatz-zatiak kendu dira.

Bederatzi.-37. artikulua. Bat. 2. atala, 1. zenbakia.

“1.a. Bidaiari garraioak eta horien ekipajeak.”

Hamar.-60. artikulua, 2. atala, 2. zenbakia, lehenengo lerroaldea.

“2.a. Kuotak zuzendu ondoren ateratzen den kopurua hasieran kendutakoa baino txikiagoa baldin bada, subjektu pasiboak zuzenketarako aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko du. Kasu horretan, Tributuiei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 52.3 artikuluan aipatu errekar-guak aplikatuko zaizkio, hala nola berandutza korrituak.”

Hamaika.-109.1.7. artikulua.

“7.a. Foru Lege honetan ezarritako betebeharren ondorioetarako ordezkari bat izendatzea, Nafarroako erkidegoan ezarrita ez dauden subjektu pasiboak direnean, salbu eta Kanarietan, Ceutan edo Melillan ezarrita baldin badaude, edo Nafarroan diren laguntza baliabideak edo horien antzekoak dituen beste estatu batean.”

Hamabi.-110.2. artikulua, bigarren lerroaldea.

“Jasotzen diren fakturak Balio Erantsiaren gaineko Zergak ezarritako kuotak jasan dituzten erosketenak baldin badira, eta horien kenkariaren ondorioetarako erregularizazio epe bat ezarrita baldin badago, faktura horiek gorde beharko dira erregularizazio epea amaitu eta hurrengo lau urteetan.”

### **Azken xedapana**

Foru Dekretu honetan ezarritako arauak behin-behinekoak dira, Nafarroako Parlamentuak onetsi bitarte.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	